

**BILBAO EKINTZA, EPEL ETA ELHUYAR FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA-
HITZARMENA, “ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2024” IZENeko EKITALDIAREN
ESPARRUAN**

Erref. 240616/Col.

BILDUDIRA

Alde batetik, F. JAVIER GARCINUÑO ZABALA jauna, adinez nagusia, BILBAO EKINTZA, EPEL sozietatearen zuzendari nagusia den aldetik (IFK: Q-4800731-D; helbidea: Nafarroa: 5 - 48001 Bilbo), erakundearen Administrazio Kontseiluak 2019ko abuztuaren 21ean egin zuen izendapena dela bide egiaztatuta, eta Bilbao Ekintza, EPEL sozietatearen estatutuetako 16. eta 17. artikuluek xedatzen dutenari jarraituz (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 127. zk., 2011ko uztailaren 5ekoa).

Eta bestetik, JON ABRIL OLAETXEA jauna, ELHUYAR FUNDAZIOAREN izenean eta erakundea ordezkatzuz (IFK: G20780896; helbidea: Zelai Haundi 3 – 20170, Usurbil).

AZALDU DUTE

I.- BILBAO EKINTZA, EPEL sozietatea (aurrerantzean, “BILBAO EKINTZA”) Bilboko urirako aberastasun ekonomikoa eta soziala sor dadin sustatzen duen udal-erakundea da, uria inbertitzeko, enpresak sortzeko eta berton hazteko helmuga erakargarri gisa indartuz, bai eta enplegua lortzeko aukerak hobetuz ere.

II.- ELHUYAR FUNDAZIOAK (aurrerantzean, “ERAKUNDE ONURADUNA”) “ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2024” izeneko ekintza aurkeztu dio BILBAO EKINTZAri, hau da, ERAKUNDE ONURADUNAK bultzatu eta antolatutako jarduera bat, bokazio zientifiko eta teknologikoak 12-18 urteko gazteen artean sustatu nahi dituen.

III.- Gero eta agerikoagoa da betetzen zailak diren lanpostu zientifiko eta teknologikoen beharra dagoela, lanpostu horietan jarduteko langile kualifikaturik ez baitago. Horregatik, “Zientzia Azoka” proiektua abian jarri da; proiektu horretan, Euskal Herriko zein Euskal Herritik kanpoko ikastetxe eta gazteek parte hartzen dute.

Ekimenak ikasturtean osoan irauten du eta 12-18 urte arteko gazteek parte hartzen dute. Zientzia Azoka garatzeko, proiektu zientifiko edo teknologiko bat egiten dute, Euskal Herriko unibertsitateetako eta ikerketa-zentroetako gidarien eta profesional ikertzaileen laguntzaz; proiektuaren amaieran, azoka egiten da, gazteek eginiko lanak edo erronkak ezagutarazteko.

Proiektuen amaierako erakusketa jende asko biltzen den eremu batean egiten da; hala, kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntzakoa herritarrengana iristen da, gazte-taldeek eskutik, euskal zientzia- eta teknologia-sare osoak eta administrazioek horretan laguntzen dutela.

Aurten, azoka maiatzaren 22tik 25era egingo da, Areatzako kaian, eta sari-banaketa maiatzaren 25ean egingo da.

IV.- Azken batean, Bilbao Ekintza sozietatearen interesekin oso lotuta dagoen proiektua da; hain zuzen ere, proiektu horren helburuetako bat tokiko talentua sortzen eta garatzen laguntzea da, eta, beraz, Bilboko uriaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

V.- Arestian jasotako gogoetetan oinarri harturik, Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko abenduaren 28an egindako bilkuran, 20.000 euroko dirulaguntza izenduna ematea erabaki zuen. Hala eta guztiz ere, partaidetzaren hazkundera eta, horren ondorioz, azken urteotan izandako hazkunde ekonomikoa dela eta, Udalbatzak dirulaguntza handitzea onartu du, 2024ko maiatzaren 30ean, beste 10.000 euroko zenbatekoa emanda.

Horregatik guztiagatik, eta orain arte azaldutakotik eratorritako eskubide eta betebeharren esparrua arautzeko, bi alderdiek, jarduten duten arloko eskumen eta gaitasun juridiko nahikoa aitortuta, honako hitzarmen hau sinatu dute. Hitzarmena honako klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea

Dirulaguntzaren helburua Zientzia Azokaren jarduera laguntzea da; azokak bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzea du helburu, bai eta garatutako proiektuak 2024ko maiatzaren 22tik 25era Bilbon egingo den “ELHUYAR ZIENTZIA AZOKA 2024” izeneko ekitaldian aurkeztea ere.

BIGARRENA.- Lankidetzaren garapena

ERAKUNDE ONURADUNAK ekimena antolatuko du bere jarduera-proposamenaren arabera eta aurkeztu duen dokumentazioaren arabera antolatzeko konpromisoa hartzen du. Era berean, BILBAO EKINTZAK eskatzen dizkion sustapen-, gizarte- edo kazetaritza-ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

Beste alde batetik, BILBAO EKINTZAK HOGEITA HAMAR MILA EURO (30.000,00 €) emango dizkio ERAKUNDE ONURADUNARI dirulaguntza gisa, ekitaldia egin dezan.

HIRUGARRENA.- Indarraldia

Lankidetz hitzarmen honen iraupena hitzarmena sinatzen den egunetik dirulaguntzaren xede den ekintza gauzatzen den egunera artekoa izango da. Nolanahi ere, akordioa amaitzen den egunean, hitzarmenaren klausula batzuek betebehar-balioa izango dute, betiere klausulen ondorioek akordioa amaitutakoan indarra badute.

LAUGARRENA.- Ordaintzeko era

Ondutako akordioa dela bide, BILBAO EKINTZAK konpromisoa hartzen du hitzarmen honen bigarren klausulan adierazitako zenbatekoa ERAKUNDE ONURADUNARI emateko, honako epe eta baldintza hauetan:

- HOGEITA ZORTZI MILA EURO (24.000,00 €), gehienez ere, hilabeteko epean ordainduko dira, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita.
- SEI MILA EURO (6.000,00 €) ekitaldia amaitutakoan ordainduko dira, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

- Jardueren oroitza-txostena edo memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita (jarduerak begien bistaz ezagutzeko modua ematen duen dokumentazio grafikoa erantsi beharko da).
- Hitzarmen honetan jasotako diruz lagun daitezkeen kostuak justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasota:
 - Egingako jardueren diru-sarreraren zerrenda.
 - Egingako jardueren gastuen zerrenda, hartzekoduna identifikatuta.
 - Eskatu diren aurrekontuak (3), dirulaguntzari egotzitako gasturen bat Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako muga (15.000 €) baino handiagoa bada.
 - Dirulaguntzaren zenbatekoari egotzitako jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak. Era berean, ordainketaren egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Faktura horiek ezin izango dira beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzak justifikatzeko aurkeztu, egotzi gabeko ehunekoa justifikatzeko izan ezik.

Hala ere, ERAKUNDE ONURADUNAK dirulaguntzaren guztizko zenbatekoa ordaintzeko eskatu ahal du esandako unea iritsi baino lehen; horretarako, eskabide egokia aurkeztu beharko du idatziz. BILBAO EKINTZAK, antzemandako beharren arabera, aitortutako dirulaguntza ordainduko du. Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko gorago adierazi den dokumentazioa entregatzeko beharra.

Justifikatzen den guztizko zenbatekoa hitzarmen honen bigarren atalean jasota dagoen eta eman den guztizko kopururaino iristen ez bada, BILBAO EKINTZAren azken ekarpena murriztu egingo da zenbateko horren arabera; gainera, gerta liteke ERAKUNDE ONURADUNAK jasotako diru-kopururen bat itzuli behar izatea, justifikatu ez badu.

ERAKUNDE ONURADUNAK bermatzen du gainfinantzaketarik ez dela izango hitzarmen honetan jasotako diruz laguntzeko moduko kostuei doakienez. Horrelakorik gertatuz gero, ERAKUNDE ONURADUNAK esandako aldea gaingiditzen duen ehunekoa itzuli beharko dio BILBAO EKINTZAri.

BOSGARRENA.- Erantzukizunen araubidea

BILBAO EKINTZAK ez du bere gain hartuko, inola ere, ekintzen garapenetik erator daitezkeen edozein kalteren erantzukizunik, ez eta inolako kontzepturi loturik ere.

ERAKUNDE ONURADUNAK bere gain hartzen du hitzartutako jardueren ziozko

erantzukizuna, eta erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko ditu, eska dakizkiokeen beste batzuk alde batera utzi gabe, eta onuradunak ordaindu beharko ditu.

SEIGARRENA.- Publizitatea

ERAKUNDE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du BILBAO EKINTZAK ematen dizkion logotipoak erabiltzeko, laguntzaile gisa agertzeko, onuradunak sustatutako jardueren publizitate osoan, lehentasunezko tokiren batean, bai eta hedapen-materialetan, seinaleetan eta abarretan ere.

BILBAO EKINTZAK ERAKUNDE ONURADUNAK emandako memorian jasotzen den dokumentazioa (edozein euskarritan ematen diren irudiak ere bai) erabili ahalko du bere sustapen-produktuak egiteko eta interesgarritzat jotzen dituen hedabideetan zabaltzeko (memoriak, ikus-entzunezko proiektzioak hainbat gunetan, hala nola Bilboko Turismo Bulegoan eta abarretan).

Ildo horretan, ERAKUNDE ONURADUNAK BILBAO EKINTZARI xede horretarako entregatzen dizkion euskarri eta dokumentuetan agertzen diren pertsonen baimenak izan beharko ditu; hala, hirugarrenek BILBAO EKINTZAREN aurka aurkezten dituzten erreklamazio edo erreklamazio-mehatxu oro defendatu beharko du bere kabuz onuradunak, baldin eta balizko erreklamazio horren oinarria bada emandako edukiek datu pertsonalen babesa urratzen dutela, bai eta, hala badagokio, hirugarrenen jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak ere urratzen dituztela.

ERAKUNDE ONURADUNAK ez dio BILBAO EKINTZARI inolako erantzukizunik ezarriko aurreko bermeak ez betetzeagatik sor litezkeen erreklamazio, kalte edo karguen zioz.

Era berean, BILBAO EKINTZAK konpromisoa hartzen du sozietatearen esperientzia, bitartekoak eta dokumentazioa emateko, bai eta ERAKUNDE ONURADUNAREKIKO lankidetzak sustatzeko eta ahaleginak bateratzeko, uria zeinahi eratan sustatzeko eta Bilboko uriaren etorkizuneko sustapena egiteko.

ZAZPIGARRENA.- ONURADUNAREN betebeharrak

ERAKUNDE ONURADUNAK konpromisoa hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua jasotzen dituen betebeharrak betetzeko; ildo horretan, onuradunak adierazi du betebeharrak ezagutu eta onartzen dituela. Era berean, konpromisoa hartzen du irudi profesional ona izateko eta BILBAO EKINTZAREN irudiari kalte

egiten dion edozein jarrera edo jokabide saihesteko. Horrez gain, BILBAO EKINTZAK eskatzen dionetan, garatu beharreko jardueri, egindako sustapen-ekintzei eta horien ondorioei buruzko edozein informazio emango du.

ERAKUNDE ONURADUNAK lankidetz hitzarmen hau dela bide bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, BILBAO EKINTZAK ahalmena izango du hitzarmena azkentzeko eta ordaindutako zenbatekoak itzul daitezela eskatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Arau-haustea eta zehapenak

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 52. artikuluan eta hurrengoetan jasotako arau-haustea eta zehapenak aplikagarriak izango dira lankidetz hitzarmen honetan jasotakoetan.

BEDERATZIGARRENA.- Araudia

Lankidetz hitzarmen honetan jasotzen ez diren alderdiez denaz bezainbatean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege hori garatzeko araudiak xedatutakoak aplikatuko dira.

HAMARGARRENA.- Jurisdikzio eskuduna

Alderdiek, legokiekeen beste edozein foruri berriaz uko eginda, Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean jartzen dira hitzarmen honen zioz sor daitezkeen gatazkak ebazteko.

Horrela jasota gera dadin, hitzarmena berretsi eta horren ale bi sinatu dituzte, ondorio bakarrerako, Bilbon, sinadura elektronikoaren egunean.

BILBAO EKINTZA, EPEL

ELHUYAR FUNDAZIOA

Sin. F. Javier Garcinuño Zabala

Sin. Jon Abril Olaetxea